

# Agustín Anabitarte, Donostiako eskal idazle jatorra

Hil honen lauan hil zitzaizun Donostian Agustín Anabitarte Iruzu eskal idazle jatorra. Hiri berean sortua zen 1891ko azaroaren 20an. Aspaldi idazterari utzia zegoen baina garai batean egin zituen lanak go-goangarriak ditugu.

Argia-ren sortzaileetarikoa bat zen eta aldizkari honez gainera **Euskal-Esnalea**, **Euzkadi**, **Guipuzkoarra** eta **Euskera** aldizkarietan idatzi zuen, inoiz "Anabi" izenordez. Bai, idazle bezala, libururak izan ziren bere emaitzarik ederrena.

Erdaraz idatzi zuen liburu bakarra **Patrones y capitanes de yate** deritzana da, 1958an argitaratua eta gerotik beste zenbait argitalpen izan dituen. Baina, beste zenbait liburutan utziko zigun sorkeriazko lana, euskara jatorrez idatzi eta kaleor giroz gainera. Merexi du beren berri ematea.

Lehen lehenik **Neska-mutileri dirua aurrezturen erakusteko** liburuxka bat atera zuen Aurrezki Kutxaren eskariz, 1923 urtean. Gero, **Antziñako Olinpiar Jolasak?** 1925an, urte bete gerago **Euskal Esnalea** elkarlearen **Itzaldiki** saillean berriz argitaratuko zena, beren eskariz eman zuten hitzaldi bat bai zen Olinpiadak zer ziren agertuz. Baina lan mamitsuagoak horien ondorean etorriko ziren.

Euskaltzaindiak "Schuchardt Saria" eratu zuen literatura bizkortzeko asmoz. Bi urtez izan zen eta bietan Agustín Anabitarte eraman zuen saria, 1929an eta 1932an.

**Usauri**, eleberrri eraz egindako irakurgaila da, 1930an **Euskera** aldizkarian zatika argitaratu zen lehen-dik eta liburu apartean gero. Itas-giroko liburua, donostiar eta jatorrean idatzi, euskara erretzean, esaldiz aberats, hizkirimiri ugari, ironiarik ez zaio falta. Bere idazkera jolaskorrean eta bizkortasun

nean badu Pio Barojaren idazkera taxura, bere umorea hain mina izan gabe. Atseginez irakurtzekoa da eta inoiz ez dut ulertu gure artean zergatik ez duen izan begirapen hobea eta ospe handiagoa. Guk euskarazko lanak arretaz hartu ez ditugulako ote? Estilo aldetik behintzat, oraingo donostiar gazteak nolabait teko euskaraz ari direnek badute A. Anabitartegandik zer ikasirik. Eta bertako ikastolak nekez aurkituko dute irakurgai hobirik.

**Donostia deritzana ordea, egileak berberak zion bezala "Usauri-ren anai laztana"** da. Baina donostiarriztatzat ungiarriagoa. **Usauri**, itzas bidariz harai-kunat mugitzen denez eta **Donostia** hiri barneko gorabeheraz, bertako giroz ihardungo bait da. Liburu hau ere, lehen lehenik Euskaltzaindiaren **Euskera** aldizkarian zatika argitaratu zen eta gero liburu berezitan. Nik daukadan alea egileak berak Donostiako Eusko Pizkundea zeritzan elkarleari esku-erribuz eskainia da eta elkarte horren sigiluz dago. Nonbait, gertatean ebazti zutenek erretzeza baino nahiago izan zuten sas batzuk irukean saltzea eta mesede ederra egin zuten, liburu zaharren dendaren bidez oso merke nere eskuetara etorri bai zen, euskarazko liburuak kasik inor arduratzen ez zen garaian.

**Betelako mesederik ekarri zidan bertako irakurgai atseginak**. Donostiako ohiurak ederki jasoak, ditu. Donostiarrak bertako gaiez libururak aisa argitaratzen zaleak dira, baina ez dakit oraindik zelan ez diren arduratu lan horren begirataraz. Nor jasotzen bat dira bertako ohiurata jator aska, bertarako hizkuntzaz idatziarik. Kale izenez ere bada bertan zerrenda ezaugarriak. Amara berriko euskaltzale horiek liburu hau ezagutu balute ez ziren hain zakarki bezain arin sartuko beren usteko irizirik emanaz, bere jatorra liburu honen bilatu beharrean.

Bestetan "jaiak" badira jatorrak, Donostian "festak" izango dira garbizalerik borrokatuenarentzat ere. Festaz eta ospaketaz ere bada zer jaso Anabitarteren irakurgai hontan: Santomasak, Ihaureri (ordukoentzat "Iole" edo "Astelenote" bere Zapantartekin, estropadak, zezen-suzko).

**Ol tezen pitxor txingar jario, zenbat kontu zure meriol**

Eta, bertan tokian-tokiz zer ohi zen: Plaza Berriko giroa, kaita bere arrantzale eta ar=aidunen kresal usainak, Irutxuloko joan-etorriak, Bretxako merkataritza bertako txarlatanarietekin, eta abar eta abar. Historiak ere badu bere tokiak, eta hitzaldi baten oinarri bala-arrantzaren berri antz bada IX. Kapituluak. Horiekien batean, beste gorabehera asko, donostiar batek bere herriaren maitasunez idatziak. Donostian Donosti. Momo jaio-kiakin esan dezagun: **Hartu jende maitiak Donostiakoak Oroipen aurrekoak Bihotz girokoak.**

**Gainerako eskal idazle guzietan bezala, hutsarte luze bat idekiko zuten gerrate izan hake Anabitarteari, eta gutien uste genuen garietan agertuko zitzaizun berriz, isila hutsiz, Poli zeritzan eleberrietekin.** Egia esan, nik neuk, hau izan nuen Anabitarteren lanetarik lehenen ezagutu nuen, 1958an. Bertako idazkera erraz eta polita ezagutzeko arduratu bat nintzen **Usauri** eta **Donostia** arretaz irakurtzera.

**Poli** (1958), Kullitza sortan argitaratu zen, multz emertzat baten ibilertan oinarritzen da eleberru hau. Umezurtz horrek, bere bizilekua, edo hobeto esan, gorde-lekua, Urgull mendiko gaztelu zahararen toki batean du eta Donostiako parte zaharrek baxter guziki miakatsen dituna da, janari bila edo bere bihurkerietan.

Harrera ona izen zuten eleberririk. Ez dakit horregatik izango zen, baina urrengo urtean Euskaltzaindiak bere urgazle izendatu zuen.

Azkenik, **Apreika-ko hasamortuan** (1961), Itxaropena Argitaldaria Kullitza soria berean argitaratu. Bidaiazko liburua da, 1954aren hasieran Afrikako isuraldietik egin zuen jira kontatzen du bertan, liburuaren azkenen ibilera harko argazkiak agertuz. Marsella-tik Aljer-era jo zuen eta handik buxsaada, Briska, Tugurt, Uargla, Gordaia, El Golea, Timimum eta Adar zehar ibili zen. Han bitzua eta han ikusia kontatzen ditu. Egia esan, holako literaturarik ez da maiz erabili euskaraz eta honek beste gabe baliatzen du bere lana.

Behar bada, liburuaren hitzurrean erakusten digu egileak bere urdurutasuna, edo ibiltari gogo: "Nik burralde guzietarako gogo izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria. Isastarren gogoa naita ere bai. Izan ere, oriek ikusten dituzten erri ia bazterrak " Holako gogoz, holako ikuspegi burutu zuen Agustín Anabitarte bere euskarazko literatura lanak.

Orain, azken bidaia hontan, har dezala betiko atsedena, baina donostiarrak bere obra ezagutzeko arreta.

JUAN SAN MARTIN

El día 4 de los corrientes falleció en San Sebastián, su ciudad natal, a los 91 años de edad, el escritor Agustín Anabitarte, y tengo la impresión de que su pérdida no ha tenido el suficiente eco en el entorno cultural de reivindicaciones vasquistas, o, a decir de otro modo, una vez más mostramos nuestra ignorancia sobre la literatura escrita en vascuense, en el que A. Anabitarte merecía ocupar un lugar que dignamente le pertenecía. Diría hasta un lugar privilegiado en San Sebastián, como narrador de la ciudad de sus amores. Pues en sus

## Antxietaren Opera Omnia

Gipuzkoako Aurrezki Kutxari esker, badugu musikazaleok eskuertean osorik Antxietaren musika lana. Orain arte bilatzen genituen partiturak eziren, askotan, fidegarriak eta, gainera, eskal musikagile honen lanak aurkitzea, bizpahiru izan ezik, oso zaila zen gehienetan. Gure absentsen artxiboak osatzeko ostaz egin behar zen bilakuntza zen benetan hau.

Joanes Antxietia eskal musikua punterengoa dugu, gure musikaren historian zehar hiru edo lau urtean berriz aipatu beharko duguna. Ez da oraindik bere jaiotzaren agiria azaldu eta Imanol Elias Odrizozolak liburuaren hasieran ematen digun biografian ere ez da data hau agertzen. Baina, ene ustez, biografiak honen esan behar ziguna zen Stevensonek egindako estudioan (1960), 1462 dela segurak Antxietaren jaiotza urtea, pertsonaia hau gure historian finkatzeko, data horrek in ados daudelarik Pena, Anglés, Rees eta Honegger, beste batzuen artean. Elias jaunak hainbat gauza berri ematen dizkigu Azeptiatiko artxibotaren bilduak, baina Antxietaren bizitzako beste dato interesgarriak, beste biografiak batzuk emandakoak, falta dira liburuan, adibidez, Jose Ignacio Aranak, Karmelo

Etzegarrikoak, Aita Donostiak, lehen aipatutako Robert Stevensonek eta Endrike Jordak azalduko ditako. Antxietaren lan osoak argitara ematekoan, biografia zehatzago bat merezi zuen liburuak.

Errege Katolikoen Kapeitua izan zen izendatua gure Antxietia 1489.ean eta sei urte gerago, 1895an, Kapel Maisua. Baina ez zuen bere jaiotzerria ahaztu eta 1500.ean Soreasuko San Sebastian Parrokiaren Erretorea da Joanes Antxietia. Flandes aldera jo zuela diote 1504an eta bertako musikari ospetsuekin harrametan jarri zen, bere musikari bide herriak zabaldu. Karlos Erregeak 1519an orduarteko karguetan batezuta ondoren, Azeptiatiko Konzeptionisten Kapeitua gisan herritatu zen eta Azeptian, 1523.eko Uztaitaren 30an hil.

Artixko askotan daude Antxietaren lanak bilduta: Barcelona, Tarazona, Sevilla, Valladolid, Segovia, Coimbra. Baina ahaztuta egon den musikua dugu Antxietia, Aita Donostia eta Higinjo Anglés izan ziren azeptiarraren lanak azaltzen salatu zirenak, baina gaueko liburu hau argitaratu arte ez zen erraza banan banan lan guzikiak bilteza. Orain esan dezakeguna da gure Koruek ez dutela atxakirik

gure musikagile honen lanak ez interpretatzeko. Eta uste dugu eta nahi dugu aurrezturen gehiago abestua izango dela gure Antxietia.

Liburuaren lehen 81 orrialdeak Antxietaren biografia eta bere lanen azterketa xehatua dakarte, Samuel Rubio musikologoa egindakoa. Koruen zuzendarietaz hainbat gauza berri ematen digun estudioa, hain zuzen. Eta gero 189 orrialde betietzen dituzte 24 lanen partiturak. Hauetarik aparte beste lan bat ere aipatzen du Hernandez Acecune jaunak; diozkunez, Irueñako Katedralean **Adoramus te Christe** bat gordetzen zen **Rubio** Artixbano. Baina talemaz lanak biltezean ezuen Rubio jaunak partitura hau aurkitu eta argitaratu gabe geratu. Dana dala nahiko da 24 lanekin Antxietaren musikagintza ezagutzeko.

Beste hutsuneixo bat ere ikusten dugu liburuan. Valverdekin egin zuten Antxietaren irudia ez legoke gaizki liburuak apakatzeko. Lurregi eskatzea ote da? Ezin da txiker horiek alde batera utzi, itxaro genuen liburu dela esan beharko dugu eta lan egin duen jaunei eta argitardari den Gipuzkoako Aurrezki Kutxari zorionak eta esker beroak eman beharren aurkitzen gara

musikazaleok eta euskaldun guzitiok. Antxietia musikua gure artean ezagutzeko izateko arrazoirik ez daukagu orain, behintzat.

Jose Antonio ARANA MARTIJA

Gracias a la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa tenemos entre manos, los amantes de la música las obras completas de Joanes de Antxietia, el gran polifonista azeptiarrak. Las partituras de este músico que hasta ahora eran difíciles de conseguir las tenemos ya dispuestas para ser interpretadas por nuestros coros.

Aunque seguimos sin conocer la fecha de nacimiento de Antxietia, a pesar de las últimas averiguaciones que ha hecho en los Archivos de Azpeitia, Imanol Elias Odrizozola, bien hubiera venido que nos hubiera dado éste la fecha que fijó, entre otros, Robert Stevenson, es decir, 1462. Muchos datos nuevos nos da el 1462. Muchos datos nuevos nos da el presen Elias en la biografía que precede, en el libro, al análisis musical de Samuel Rubio; pero se echan de menos muchos datos de su vida que ya investigaron, entre otros, Arana, Echegaray, Donostia, Anglés y

temas se propo... de San Sebastián... castro... son dignos de... gias de los... Fue... boró... publicaciones... kal Estala... rra y Bar... con su opo... bi". Era... de la Real... Vasca... Sus... libro... la divi... pios. An... Su... nes y cap... Cuatro... de la situ... mente... cencia. S... obra... nero, im... recibí... charri de... Donost... 1932, se... Sebastián... con... etc. en... Poli (195... central... que ba... ruinas de... protagon... tras en la... Apretia... narra un... Africa lle... 1954. Una ob... agradable... humor. Me... sobre todo... de su ind... aporta un... los comen... líneas para... vido.

Jord... compa... gustado... biografía... Copia... chieta se... de Barce... Iñola... pesar d... sico des... Donost... ron algu... demos... no tiene... lida, par... fónica de... nuestro... Historia... Las 81 p... están... Elias y... hace Sa... cación d... largo de... para de... reales... este p... el mé... bemos... y a la C... Guipúz...